

Parkeak garbi mantenduko ditugu, ez dugu lurrera zaborrik botako eta hondakinak dagokion ontzian sailkatuko ditugu.

Hildako zuhaitzak errespetatuko ditugu (goroldioa errotik ez atera, ostikorik ez jo...)

Errekara zaborrik ez dugu botako eta norbait errekarara zaborra botatzen ikusiz gero, atentzioa deituko diogu.



## 2013-2014 ikasturtean Legazpiko ikasleek hartutako konpromisoak

Zabor gutxiago sortuko dugu eta dagokion edukiontzian sailkatuko dugu.

Mendira joaten garenean ez dugu zaborrik botako eta hondakinak dagokien edukiontzietan botako ditugu.

Gure ingurunea zainduko dugu; lurrera ez dugu zaborrik botako, animalia eta landareak errespetatuko ditugu eta herria txukun mantenduko dugu



## 2013-2014 ikasturtean Legazpiko ikasleek udalari egindako proposamenak

- Jende asko elkartzen den lekuetan (goxoki dendak, Giroa taberna, ...) hondakinak sailkatu eta botatzeko zakarrontzi gehiago jartzea eta egoera egokian mantentzea.
- Eskualde mailan animalia zaurituen arretarako gune bat jartzea, albaitariekin edo horretan aditua den jendearekin.
- Errekaren egunaren antolaketarako gaztetxea eta udalaren arteko elkarlana bultzatzea, horrela gazte gehiagok parte hartu dezaten.

